Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA
ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

473

AGINDUA, 2009ko azaroaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Getxoko (Bizkaia) «Fundación Integrando» fundazioaren estatutuen eta haren patronatuko osaeraren aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzen duena.

«Fundación Integrando» fundazioak bere estatutuen aldaketa onartu eta inskribatzeko eta haren patronatuko osaera aldatzeko aurkeztutako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2009ko uztailaren 23an sarrera izan du Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistro Orokorrean Ana M.ª Mahiques Miret andreak «Fundación Integrando» fundazioaren ordez eta izenean izenpetutako eskabidea, estatutuen aldaketa eta patronatuko kideen kargu-uzte eta izendapenak inskribatzeari buruzkoa.

Eskabideari eransten zaizkionak:

– «Fundación Integrando» fundazioko patronatuaren erabakiak publiko egiteko eskritura publikoaren bi kopia baimendu. Eskritura hori 2009ko ekainaren 12an egin zen Bilboko Ana María Mahiques Miret notarioaren aurrean (910 protokolo-zenbakia).

Getxon, 2009ko ekainaren 12an egindako bileraren aktaren egiaztagiria, bileraren data berekoa, erantsi zaio eskritura publikoari. M.ª Isabel Macias Sanchez fundazioko patronatuko idazkariak egindako egiaztagiria da patronatuko lehendakari Pedro López Zalduendo jaunaren oniritziarekin, eta horien sinadurak notarioak egiaztatu ditu eskrituran bertan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egiteko-

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

473

ORDEN de 16 de noviembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la modificación de estatutos de la «Fundación Integrando» de Getxo (Bizkaia), así como la variación de patronato de la misma.

Visto el expediente que presenta «Fundación Integrando» de aprobación e inscripción de la modificación de los Estatutos de la Fundación y de inscripción de la variación de su Patronato, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 23 de julio de 2009 ha tenido entrada en el Registro General del Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud suscrita por Dña. Ana M.ª Mahiques Miret en nombre de la «Fundación Integrando» de inscripción de modificación de estatutos y cese y nombramiento de miembros del Patronato.

A la solicitud se adjunta:

– Doble copia autorizada de la Escritura pública de elevación a público de acuerdos del Patronato de la «Fundación Integrando» otorgada el 12 de junio de 2009 ante la Notario de Bilbao, Dña. Ana María Mahiques Miret, n.º 910 de su protocolo.

La Escritura pública incorpora certificación expedida en Getxo el 12 de junio de 2009 por la Secretaria del Patronato de la Fundación, Dña. M.ª Isabel Macias Sanchez, con el visto bueno de su Presidente, D. Pedro López Zalduendo, firmas legitimadas por la Notario en el cuerpo de la Escritura, del acta de la reunión celebrada el mismo día.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administra-

ak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Hirugarrena.– Bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 10., 11., 12. eta 40. artikuluetan agindutakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 40. artikuluan eta hurrengoetan agindutakoa; artikulu horiek fundazioen patronatuko kideen izendapena inskribatzeko prozeduraren betebeharrak ezartzen dituzte.

Laugarrena.– Fundazioen estatutuetako aldaketak, patronatuaren aldaketak eta ahalordeen ezeztatzeak eta emateak inskribatzeko oro har eskatutako baldintzez gain, gai horretaz Fundazioko Estatutuetan berariaz jasotzen diren arauak betetzen dira.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Integrando» fundazioaren estatutuetako 1. artikuluaren (helbidea) eta 5.aren (jarduerak) aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, «Fundación Integrando» fundazioaren patronatuko erabakiak publiko egiteari buruzko eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskritura hori Ana María Mahiques Miret notarioaren aurrean (910 protokolozenbakia) gauzatu zen 2009ko ekainaren 12an.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Getxoko «Fundación Integrando» fundazioari irekitako erregistro-orrian, on-

ción de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Tercero.– Se cumple lo dispuesto en los artículos 10, 11, 12 y 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; así como los artículos 40 y siguientes del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, que establecen los requisitos procedimentales para la inscripción de los nombramientos de los órganos de gobierno de las Fundaciones.

Cuarto.– Además de los requisitos exigidos con carácter general para la inscripción de las modificaciones de estatutos, variación de Patronato, revocación y otorgamiento de poderes de las Fundaciones, se cumplen las reglas que, con carácter particular, recogen los Estatutos de la Fundación al respecto.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública resuelve,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 1 (domicilio) y 5 (actividades) de los Estatutos de la «Fundación Integrando».

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública de elevación a público de acuerdos del Patronato de la «Fundación Integrando» otorgada el 12 de junio de 2009 ante la Notario de Bilbao, Dña. Ana María Mahiques Miret, n.º 910 de su protocolo.

Tercero.– Inscribir en la hoja abierta en el Registro de Fundaciones del País Vasco a la «Fundación Integrando» de Getxo (Bizkaia), el cese por renuncia

doren zehazten diren fundazioko patronatuko kideen kargu-uztea –kide izateari uko egiteagatik sortutakoa– inskribatzea: Tamara García Arrabal, Roberto García Callejo Ballesteros eta María Victoria Rogado Ramos, betiere «Fundación Integrando» fundazioaren patronatuko erabakiak publiko egiteari buruzko eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskritura hori Ana María Mahiques Miret notarioaren aurrean (910 protokolo-zenbakia) gauzatu zen 2009ko ekainaren 12an.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Getxoko «Fundación Integrando» fundazioari irekitako erregistro-orrian, patronatuko kide izateko ondokoen izendapena inskribatzea: Pedro López Zalduendo (lehendakari), María Isabel Macías Sanchez (idazkari), Miren Agurtzane Hernando López de Arechaga eta Miren Jasone Olabarri Astondoa, betiere «Fundación Integrando» fundazioaren patronatuko erabakiak publiko egiteari buruzko eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskritura hori Ana María Mahiques Miret notarioaren aurrean (910 protokolo-zenbakia) gauzatu zen 2009ko ekainaren 12an.

Inskripzio horren eta aurreko beste batzuen arabera, honela dago osatuta Patronatua:

de Dña. Tamara García Arrabal, D. Roberto García Callejo Ballesteros y Dña. María Victoria Rogado Ramos como miembros del Patronato de la Fundación, en virtud de la Escritura pública de elevación a público de acuerdos del Patronato de la «Fundación Integrando» otorgada el 12 de junio de 2009 ante la Notario de Bilbao, Dña. Ana María Mahiques Miret, n.º 910 de su protocolo.

Cuarto.– Inscribir en la hoja abierta en el Registro de Fundaciones del País Vasco a la «Fundación Integrando» de Getxo (Bizkaia), el nombramiento como miembros del Patronato y con los siguientes cargos de D. Pedro López Zalduendo (Presidente), Dña. María Isabel Macías Sanchez (Secretaria), Dña. Miren Agurtzane Hernando López de Arechaga y Dña. Miren Jasone Olabarri Astondoa, en virtud de la Escritura pública de elevación a público de acuerdos del Patronato de la «Fundación Integrando» otorgada el 12 de junio de 2009 ante la Notario de Bilbao, Dña. Ana María Mahiques Miret, n.º 910 de su protocolo.

De esta inscripción, y de otras anteriores, el Patronato queda configurado como sigue:

Kargua	Kideak	Indarraldia
Lehendakaria:	Pedro Hernando Zalduendo jauna.	2014-09-12a arte
Idazkaria:	M.ª Isabel Macias Sánchez andrea.	2014-09-12a arte
Batzordekideak:	Miren Agurtzane Hernando López de Arechaga andrea.	2014-09-12a arte
	Miren Jasone Olabarri Astondoa andrea.	2014-09-12a arte

Cargo	*Patronos*	*Vigencia*
Presidente:	*D. Pedro Hernando Zalduendo*	*Hasta 12-09-2014*
Secretario:	*Dña. M.ª Isabel Macias Sánchez*	*Hasta 12-09-2014*
Vocales:	*Dña. Miren Agurtzane Hernando López de Arechaga*	*Hasta 12-09-2014*
	Dña. Miren Jasone Olabarri Astondoa	*Hasta 12-09-2014*

Bosgarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten

Quinto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día

den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.